

# B

BARREN

TOKIKOM



## Atletismotik harago

Mugertza Krosa domekan, Mintxetan

# Eskerrik asko!

Azkue argazki-denda / Beitia Arriola hortz-klinika / Beitia Arriola fisioterapia / Dori urdaitegia-  
Agurtzane ile-apaindegia / Garate jantzi-denda / Moma jantzi-denda / Hazten jantzi-denda / Ikus  
optika / Arkupe okindegia / Armueta harategia / Goroztiza liburu-denda / Lagunak Textil Hogar /  
Julen Zabaleta / Arauri lurrindegia / Goiara lurrindegia / Muruamendiaraz gozotegia / Ostruka jan-  
tzi-denda / Maidagan jantzi-denda / Sara jantzi-denda / Ziur jantzi-denda / Kontxi jantzi-denda /  
Astigarraga kirolak / Iriondo kirolak / Ezenarro mertzeria / Karkizano mertzeria / Skandalo mertze-  
ria / Zubiaurre mertzeria / Haritz Eskal Dantzari Taldea / Amagoia gozoki-denda / Barrenetxea far-  
mazia / Patxi harategia / Kiroldegiko taberna / Evoka shoes zapata-denda / Iñaki San Martin *Soarte*  
/ Jairo Berbel / Niko Berbel / Uxue Alberdi / Napoka Iria / Pitxintxu opari-denda / Urratsak oinetako-  
denda / Xarlem creations / Zu eta Ni / Iñigo Martinez / Jasone Osoro / Lete jantzi-denda / Bire elek-  
tragailuak / Beristain edari-banatzailea / Ibar burdindegia / Olalsa / Goiara lurrindegia / Pelegrin  
banatzailea / Ekain / Eskubaloi federazioa / Sanlo / Aldaz hagin-klinika / Leigar elektragailuak /  
Belaustegi jatetxea / Ibai Ondo jatetxea / Usua taberna / Lanbroa taberna / Egur / Morkaiko /  
Columbus etxea / Markel Bergara / El desvan de Guliguri / Idama ile-apaindegia / Fotero okindegia

/ Ibarrenea okindegia / Ziarda harategia / Gautxo taberna / Ipintza  
/ Iزارo Etxegibel / Mikel Goñi / Irati Agirreazaldegia / Maite Maiora

/ Amets Txurruka / Gemma Monreal / Koldo

Lizarralde / Juan Mugertza krosa / Txomin

Mujika / Iban Barrenetxea / Natalia Mellado

/ Andres Alberdi / 6 neman 9 / Maite

Rementeria / Maider Unda / Edu Iriondo / Jon

and Sugramas / Koska musika taldea / Alfontso

Guillo / Oinberri zentroa / Ken zazpi / Softlan /

Bikustik / Arima Beltza / JM Makazaga / Iñigo Lariz /

Debemen / Bitxi-bitxi / Barren azoka / Jakoba

Errekondo / Patxi Azpirotz / Jose Antonio ile-apaindegia / Emilia

Nogales / Uzuri optika / Kala lora-denda / Luvik zapata-denda / Ecuador

bidaiak / Ametsa kafetegia / Iturri taberna / Sigma jatetxea / Julio Bueno


ardandegia / Sahatzu harategia / Iriondo altzariak / Mekanosa / Ibamar

iturgintza / Edu Arrillaga / G & M / Txarriduna jatetxea / Tantaka taberna

/ Albaitaritza klinika / Iriondo taberna / Viento Sur taberna / Mapfre /

Zezenbide auto-eskola / Danele Sarriugarte / Inprenta Arrillaga.

**Elgoibarko Izarraren**  
**TONBOLARAKO**  
**opariak emateagatik**



Maitane  
Mendikute

Urte berri on, Jani! Zer moduz eman diogu hasiera urte berriari?

2014... nahiz eta zenbakiarekin ohi-tzen hasia naitzen, futurista samarra iruditzen zait oraindik. Eta 90. hamarkadaz, 2000. urtean sartu aurreko garaietaz gogoratu naiz.

Nostalgia puntu batekin agian... gure aiton-amonek beraien haurtzaroa gogoratu ohi duten antzera. Hogei urtean asko aldatu baita dena.

Nolakoa imajinatzen zenuen 2014a, Jani? Kotxe hegalarie-tan ibiliko ginela uste al zenuen? Edota kapsula majikoen bitartez bat-batean etxeak edota espaziontzia hutsetik sortuko genituela? Eta lagunekin aurrez aurre kafetxoa hartu beharrean, kafe birtualak hartuko genituela uste al zenuen?


### “Badirudi urrutikoak gero eta gertuago dauzkagula, baina hurbilegoak urrunago”

Ez dugu kotxe hegalaririk (oraindik), baina egia esatea nahi baduzu ez nuen pentsatuko azken urteotan Internetek eragin-dako garapenek, google-ak, sare sozialek eta whatsappak kasu, gure bizimodua goitik behera hainbeste aldatzeko ahalmena izango zutenik. Negozioak egiteko modua aldatu da, harremanak egiteko modua, mundu guztiarekin erlazionatu ahal izateko modua...

Eta onura asko eta asko ekarri ditzakeen arren honek guztiak, pena eta beldur pixkat ere ematen didate aurrerapenek ekar ditzaketan galerek eta kontrolak.

Badirudi urrutiko munduak gero eta gertuago dauzkagula, baina hurbilegoak gero eta urrunago, Australian dugun senitar-tekoaz edo etxepaan dugunaz komunikatzeko bide berdinak erabiltzen hasi garen heinean.

Leihotik deituko al diegu sekula gehiago gure seme-alabei afaltzera etxera etortzeko esanez?



Janire  
Elordi

Urte berri on zeuri ere! Hala ere, nik, 2014a 13aren hurrengotzat hartzen dut; niretzat futura-rista kutsu handiagoa zuen 2.000. urte hasiera misterioitsu hark! Ordenagailuek ezingo zutela prozesatu hasierako 20 hura, sistema informatiko eta elektronikoak zoratuko zirela, mundua amaituko zela... batek daki zenbat iragarpen! Eta atzera begira jartzen hasita, orduan ezin imajinatu nolakoa izango zen gure bizimodua hamalau urteren buruan.

Zuk aipatutakoaren harira, kafe birtualik oraindik ez dut hartu, baina paperaren garaitik aro digitalera pasa garela argi dago. Jada langile askok eta ikasle gazteek ere *on-line* egiten dute lan. Etxetik sarearen bidez urruneko zerbitzari edo lankide-ikaskideekin konektatuz. Informazioa kableetan eta antenaz antena dabil kodifikatuta, orrietan idatzita baino gehiago. Eta liburutegira joan beharrean, sarean bertan bilatzen dugu informazioa. Nork ez du teklatzen gai edota zalantzaren baten inguruan gehiago jakiteko esperantzaz Googlen galderaren bat?

### “Informazioa antenaz antena dabil kodifikatuta, orrietan idatzita baino gehiago”

Neu ere banaiz Google-ren erabiltzaile, baina nabigatzaile gisa ezagutu genuen enpresa hau ez da jada bilatzaile soila bakarrik. Hasiera batean hala bazen ere, orain egiten ari den garapen eta zabalkundea kalkulaezina da, enpresa indartsu bihurtu da, informazio askoren jabe da, gure ohiturak aldatzeraino ahalmena hartu du, eta gainera, ordenagailuetatik mugikorretara ere egin du salto, Android sistema sortuz, hala sakelako telefonoetan ere nagusi izatea lortzen ari delarik. Informazioa zentralizatuta izatea lortzen ari dira.

Denbora gutxian, sakelakoek telefono izateari ere utzi diote, eta ordenagailu txiki bihurtu zaizkigu, eta gehienok sarera konektatuta bukatu dugu uneoro, 24 orduz, ia beharra bihurtzeraino. Hala ere, laster omen da-toz informazioz aseko gaituzten betaurrekoak, eta mugikorrek ordezkatu-ko dituzten erlojuak, eta berriz ere ezin imajinatu nola biziko garen hamalau urte barru.

B

BARREN

## BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

- Euskal Herria eta Espainia: **26€** (bazkideek **20€**)
- Europa: **38€** (bazkideek **29€**)
- Europatik kanpo: **50€** (bazkideek **39€**)

Harremanetarako: 943 744 112 (Ainhoa) edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALAK


elgoibarko  
bizitzaren



MENDAKAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Elgoibarko paradoxa

EAE*n fracking*-a debekatzeko Eusko Legebiltzarrean herri ekimen legegilea aurkeztu zuten egun berean, Elgoibarko udal plenoak PNV eta PSOEren botueri esker herritarrek defenditzeari muzin egin, eta enpresa pribatuen mesedetako testua adostu zuen, beste behin ere.

Gipuzkoari eragiten dion *Sustraia Fracking* proiektuaren barruan dago Elgoibar. Horregatik, Bildu talde politikoari esker, herri eskaria udal eskari izatera pasatu zen udalbatzaren 2013ko azkeneko osoko bilkuran. Elgoibar *fracking* gabeko herri izendatzea proposatu zen (Eibarren adibidez ahobatez erabaki dutena, Frantzia osoa ere bada). Baina, Elgoibarren PNVk kontramozioa aurkeztu zuen PSOEren babesarekin. Ondorioz, Elgoibar *EkoFracking*-aren alde dagoela erabaki da.

Eta zer da *EkoFracking*-a? Asmatutako hitz bat da, baina PNV eta PSOE jokatzan ari diren terenoaren adierazgarri da. Ez diote muzin egin nahi *fracking*-ari, baina hain apustu arrisksua dela oharturik, herritarrek masiboki kontrari agertu ohi direnez, ez dute hauteskundeetan herritarren babesia galdu nahi eta itxurakerietan dabilta.

*Fracking*-ean sustantzia kimiko oso kutsagarriak erabiltzen dira beti, eta oso arrisksua da. Ez da *EkoFracking*-ik existitzen, ez engainatu biztanleak!

Okil Beltzak ☪

### Esker onez

Nere bizitzako momentu latz eta illun honetan eskerrak eman nahi dizkizuet niregara hurbildu zeraten guztioi, telefonoz deitu eta mezuak edo *whatsapp*-ak bidali dizkidazuenei, Zarauzko Orokieta Herri Ikastetxeko ikasle eta irakasleei, Asierrren omenez *youtuben* ipiñi dozuen bideo hunkigarriagattik, eta orokorrian, zuen laguntza eskaini didazuen guztioi. Milla esker bihotzez danori. Baiña eskutitz hau idaztera bultzatu nauzuenak zuek zerate, lagunak. Lagun gehixago eduki leikez, baiña nire ustez, hobiak ez; horretaz seguru nago. Aberats sentitzen naiz, oso aberats. Zuek, familia, eta zer esanik ez, etxian dauzkaten bi altxorrek zerate illuntasunian argixa eta aurrera jarraitzeko indarra ematen diazuenak. Ez daukat hitzik zuek eman didazuena azaltzeko. Askok maitte zaittuet.

Mireya Isasmendi ☪

### Eskerrik asko!

Esan diogu agur 2013ari. Eman diogu amaiera Elgoibarko Izarraren 50. urteurrena ospakizun-ekintzeekin bildu eta jantzi duen urteari. Eta, egia aitortu behar badugu, amaiera ezin aproposagoa eman diogu. Abenduaren 24ko goiz-eguerdi partean itxura paregabea zuen herriko plaza nagusiak, eta 27an eliza goraino bete zen bertsoz eta bertsozalez. Jende askok lagundu digu elkartearen 50. urteurrenari hain amaiera polita ematen, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu denoi.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, batetik, Elgoibarko Izarraren aldeko tonbolako aurreikuspen onenak ere txiki laga zenituztelako. Bi orduan bukatu genituen salgai jarritako 3.000 txarteltxoak. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkizuegu, berriro ere, tonbolarako erregaluak eman zenituzten merkataria eta norbanakooi, eta baita egun horretan txarteltxoak erosi zenituzten herritar guztioi ere.

Eskerrik asko, era berean, EHBilduri, opariak gordetzeko bulegoa lagatzeagatik, eta berdin Udalarri eta Udala Brigadari, behar genuen guztia eskura jartzeagatik. Eta azkenik, mila esker Aitor Gisasolari, tonbolako aurkezle eta animatzaile lanak egiteagatik, eta tonbolaren inguruan ibili zirenen bazkideei, beste behin ere baietza emateagatik. Eskerrik asko, baita ere, talogintzan eta edaripostuan lanean jardun zenuten bazkide eta herritarroei, eta beste horrenbeste Gazte Asanbladari eta Maalako Jai Batzordeari, behar genuen guztia gure eskura jartzeagatik.

Eta, azkenik, eskerrik asko Eguberrietako bertso-jaialdian lagundu zeniguteno. Biena aroztegiari; parrokoari eta Parrokiako Batzordeari, elizako ateak parez pare zabaltzearen; antolakuntza-lanetan lagundu zeniguten bazkide eta herritarroei; bertso-eskolako ikasleei; eta, batez ere, eliza goraino bete zenutenoi.

Amaitu dira 50. urteurrenari lotutako ospakizunak, baina aurrera egin behar dugu. Aurrera egitea erabaki dugu, bai, oraindik asko geratzen zaigulako iritsi nahi dugun lekura iristeko. Eta orain arte moduan, zuekin egin nahi dugu aurrera: bazkideekin, bazkide ez zaretenekin, herriko elkarte eta eragileekin... Segi dezagun euskalduntasunerako bidea elkarrekin egiten, horrela aberasgarriagoa izango baita.

Elgoibarko Izarra ☪

## Erretratu zaharra



**1962**

Aste honetako erretratu zaharra Migel Anjel Arriolak lagatakoa da. 1962an ateratakoa da argazkia, Mendaroko Garagartzaz plazaan. Egun hartan Mendaroko bi auzoen arteko futbol partida jokatu zuten, Garagartzakoak Azpilgoetakoen kontra. Erretratuan ageri dena Azpilgoetako taldea da. Gogora ditzagun zeintzuk diren taldeko jokalaririk.

**Zutik:** Jose Luis Díez, Txomin Arrieta, Jose Mari Azpiazu, Elias Larrañaga, Jose Luis Arrillaga (†). **Makurtuta:** Pedro Mari Zuloaga, Benantzio Esteibar, Pedro Jose Mendikute eta Migel Anjel Arriola.



**MEKANOSA**

Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON  
VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak eratzia  
Lantekua: eguzi, aluminio, PVC  
Pisua orokorra

San Roke, 7 behea  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa  
Tel. 943 749 670



## Bikotekiderik gabekoentzako afaria antolatu dute Elgoibarren urtarrilaren 25erako

Belaustegin izango da afaria, eta interesatuek hilaren 22ra arteko epea dute izena emateko.

**E**maztegabe eta senargabeak, bananduak, dibortziatuak eta alargunak. Horiek guztiak kontuan hartu eta bikotekiderik gabekoentzako afaria antolatu dute Elgoibarren urtarrilaren 25erako. Belaustegi jatetxean izango da afaria, eta interesatuek urtarrilaren 22ra arteko epea dute izena emateko. Interesatuek 45 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxaren ondorengo kontu korronte honetan, euren izen-abizenak zehaztuz: 30350007270070064931. Prezio horretan afariaz gain, autobuseko txartela ere sartzen da. Autobusa 20:30ean irtengo da Eibarko autobus geltokitik (Ego-gain), eta geldialdi bat egingo du gero Txankakoako zubian, elgoibartarrak hartzeko. Josu Mugertzak, Belaustegi jatetxeko nagusiak, jakinarazi du DJ batek girotuko duela afalostea, eta plazak mugatuak direla.



### Bake epaile kargura aurkezteko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak

Juan Mari Uranga egungo bake epailearen ordezkotza izango denaren bila hasi da Elgoibarko Udala. Urtarrilaren 20ra arteko epea jarri dute bake epaile izan nahi dutenek eta horretarako lege-baldintzak betetzen dituztenek Herritarren Arreta Bulegoan eskaera aurkezteko. Bake epaile kargura aurkezteko baldintzak honako hauek dira: zigor aurrekaririk ez izatea, engainuengatik delituetan auziperatua ez egotea, naziotasun espainiarra izatea, adinez nagusi izatea, jardun judizialerako ezintasun fisiko nahiz psikologikorik ez izatea, Elgoibarren bititzea (salbuespena onartuko da, Auzitegi Nagusiaren baimena dutenen kasuan) eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389tik 397rako artikuluetan ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasunik ez izatea.

### ‘Fracking’-ik gabeko udalerrri izendatzeko eskaera baztertu du Elgoibarko Udalak, EAJ eta PSE-EEren botoekin

Elgoibar *fracking*-ik gabeko udalerrri izendatzeko eskaera aurkeztu zuen Bilduk abenduko azkeneko Udalbatzaren Osoko Bilkuran, baina ez zuen aurrera egin. EAJko eta PSE-EEko zinegotziek kontra bozkatu zuten, eta PPko zinegotzia abstenitu egin zen. Eibarren eta beste zenbait udalerritan adostu duten bezala, Elgoibarren *fracking* delako teknika hori erabili ahal izateko baimenik ez ematea eskatu zuen Bilduk [SHESA Hidrokarburoen Euskadiko Enpresa publikoak eta Petrichor Euskadi Cooperatief enpresak sei urtez ikertzeko bi eskaera aurkeztu zituzten 2011n, Jaurilaritzan,

eta baimenaren zain daude. Horetako batek, Sustrai delako proiektuak, Elgoibar ere hartzen du].

Bilduk aurkeztutako eskaeraren ordeztu, beste mozio bat aurkeztu zuen EAJk, PSE-EEren babesarekin, eta horrek egin zuen aurrera. Ikerketak zorrotzeko eskatu zuten mozio horretan, lurrazpiko haitzetan pilatutako gasa ateratzeko teknika hau “ingurumenarekiko errespetuzkoa” izan dadin. Horretarako, haustura hidraulikoa delako teknikaren eboluzioa aztertuko duen ikerketa batzorde independentea sortzeko eskatu diote Jaurilaritzari. Bilduk mozio horren

kontra bozkatu zuen, eta PPko zinegotzia abstenitu egin zen.

Elgoibarko Okil Beltzak taldeak gogor salatu du EAJ eta PSE-EEren jarraera, prentsara bidalitako ohar baten bidez. Honela dio hitz hitz gutunak “Zer da *Ekofracking*-a? Asmatutako hitz bat da, baina PNV eta PSE-EE jokatzeko ari diren terrenoaren adierazgarri da. Ez diote muzin egin nahi *fracking*-ari, baina hain apostu arriskutsua dela oharturik, herritarrek masiboki kontrari agertu ohi direnez, ez dute hauteskundeetan herritarren babesa galdu nahi eta itxurakerietan dabilta”.

## Izena **Julian Villena**



Ohi duten legez, urtarileko lehenengo zapatuan, urtarilaren 4an, ospatu zuten debarrek Urte Berriko feria edo Soro feria. Nekazal produktuen erakusketaz gainera, barazki, fruitu, gazta eta ezti lehiaketak ere antolatu zituzten, eta Elgoibarko erlezain batek, Julian Villenak, eskuratu zuen bigarren postua ezti lehiaketan. Debagoienako eta Debabarrenako eztingileek parte hartu zuten lehiaketan. Deban irabazita, datorren udaberrian Zegaman jokatu den lehiaketa handirako sailkatu da Villena. Gipuzkoako zazpi eskualdetako eztingilerik onenak lehiatuko dira han. Duela bi urte, hain justu ere, Villenak berak irabazi zuen Gipuzkoako Ezti Lehiaketa.

## Zerbitzuak **Imsersoa**

Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak zabaldu du Imersoko Gizarte Termalismo Programarako izena emateko eskaera orriak aurkezteko epea. Otsaila eta abuztua bitarteko txandentzat urtarilaren 16an amaitzen da epea, eta irailetik aurrerakoentzako 2014ko maiatzaren 16an. Interesatuak Gizarte Ongizate Sailean jaso behar dituzte eskaera orriak.

## Hitzaldia **Patxi Baztarrika**

Patxi Baztarrika (Ataun, Gipuzkoa, 1958) Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza politikarako sailburuordea gonbidatu du Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak Elgoibarrera. *Euskara. Errealitatea eta erronkak* izenburuko hitzaldia eskainiko du Baztarrikak, urtarilaren 15ean, asteazkenean, Inazio Bereziartua musika eskolan. 19:00etan hasiko da hitzaldia.

## Erakusketa **‘Maalako parkea estaltzeko ideiak’**

Maalako parkea estaltzeko asmoa du Elgoibarko Udalak eta lehiaketara aurkeztu du proiektua. Aurkeztutako lanak erakusgai jarriko dituzte urtarilaren 21etik otsailaren 5a bitartean, *Maalako parkea estaltzeko ideiak* izeneko erakusketan. Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dute erakusketa, eta astelehenetik zapatara egongo da bisitatzeko aukera, 18:30etik 20:30era. Maalako parke guztia estaliko dute, ziburuak barne. Herritarrek proiektuak bozkatzeko aukera izango dute.

## **EGUBERRIETAKO SARIAK**

### **CD ELGOIBAR:**

1. Saria: **27.061** (Ordezkoak: 01378 / 06099)

2. Saria: **12.728** (Ordezkoak: 27.307 / 17.821)

Bestalde, CD Elgoibarrek Haundi taldeko bi kamiseta zozketatuko ditu, La Caixarekin batera. Zozketa hori hilaren 28ra atzeratu dute. La Caixan edo klubean eman daiteke zozketarako izena.

### **MISKIREN ZOZKETA:**

1. Eroskiko otarra: **2344** (Nagore Sanzi egokitu zaio saria)

2. Aisia hotela: **0933** (Imanol Konderi egokitu zaio saria)

### **DANBORRADAKOEN LOTERIA:**

Caixa Catalunyaen bulegoan (Aita Agirre, 1) kobratu behar dira Atabal elkartearen Eguberrietako loteria txartel saridunak. **82.616**.

### **TXANKAKUA ELKARTEA:**

500 euroko bi bono eta ehun euroko zortzi zozketatu zituen Txankakua. 500 euroko bonoen zenbaki sarituak:

**52.743** (Ordezkoa: 63.351)

**71.459** (Ordezkoa: 62.610)

Ehun euroko bonoen zenbaki sarituak:

**74.039** (Ordezkoa: 34.654)

**78.751** (Ordezkoa: 42.933)

**76.083** (Ordezkoa: 00451)

**30.066** (Ordezkoa: 21.180)

**55.178** (Ordezkoa: 18.156)

**25.668** (Ordezkoa: 35.839)

**32.131** (Ordezkoa: 67.000)

**50.431** (Ordezkoa: 69.868)

### **EUSKAL PRESOEN ALDEKO MARISKADA:**

Otarra: **13.422**

(Marta Gomezi egokitu zaio saria)



## 160 lagunek parte hartu zuten Elgoibarren San Silvestreko lasterketan

Eugenio Carok irabazi zuen ondoen mozorrotuta korrika egiten zuenarentzako saria

**E**streinako aldia zen, baina jendeak "izugarri ondo" erantzun zuen, antolatzaileek, Mintxeta Atletismo Taldekoek, jakinarazi dutenez. Europako aurreneko San Silvestre lasterketa izango zela aurreratu zuten arduradunek, eta 160 lagunek eman zuten izena korrikarako. Urteko azken eguneko lehen minutuan irten ziren antxixika Kalegoen plazatik eta bost kilometroko ibilbidea osatu zuten herriko kaleetan barrena. Mozorrotuta egin zuten hainbatek korrika, eta Eugenio Carok irabazi zuen antolatzaileek ondoen mozorrotuta irteten zenarentzako gordetako saria. Argazki gehiago: [www.elgoibARREN.net](http://www.elgoibARREN.net).





Argazki gehiago eta bideoak: [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

# Eguberriei errepassoa



*Olentzero eta Mari Domingi haurren gutunak irakurtzen, Elgoibarren.*



# Eguberriei errepassoa



Ehundik gora opari banatu zituen Elgoibarko Izarrak, tonbolan.



Bi ordutan agortu ziren Elgoibarko Izarraren tonbolako txarteltxoak.



Urtero legez, Elgoibarko Izarrak txosna jarri zuen, taloak eta txorizo pintxoak saltzeko.



Bi lagun, tonbolan, saririk egokitu zaien ikusten.



Elgoibar Ikastolakoek txosna jarri zuten Gabon Zahar ferian.



Atxutxamaikako hezitzaileak kantuan, goizean egin zuten dlanan.

Elgoibarko parrokia bete egin zen Elgoibarko Izarrak antolatutako b. Beinke bertso eskolakoak, kantuan.

Gaztetxoak, Olientzero eta Mari Dominginen aurrean dantzan.





Abere erakusketa, Lekuederren.



Sasoiko produkturik onenak ekarri zituzten baserritarrek azokara.



Garate baserriko txerriak ikusmin handia sortu zuten Gabon Zahar eguneko ferian.



Herriko Antzokia bete egin zen Pirritx, Porrotx eta Marimotots pallazoen saiorako.



Leze gaztandegiak irabazi zuten urteko gazta onenaren



so saioan. Argazkian,

Andoni Egaña bertsoan, Elgoibarko Izarrak antolatutako bertso saioan.



Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Onintza Enbeita eta Andoni Egaña bertsoan, eta atzean, Uxue Alberdi. Gai jartzen egin zuten Alberdik.

# Eguberriei errepassoa



Oreka mantentzen  
bilezia handia era-  
lutsi zuten gazte-  
roek izotz pistan.


Haurrek  
izugarri  
gozatu  
zuten izotz  
pistan.



Jaiotza bizidunaren aurrean da-  
tzan egin zuten Haritz dantzari  
taldeko gaztetxoek.



Mutiko bat, artzai-plantetan,  
Jaiotza Bizidunean.



Erregeek mimo handiz hartu zituzten Mendaron haurtxoak, eta eskertu zieten txikiak.



Meltxor erregea, Elgoibarren, goxokiak banatzen.



Olbarko Jaiotza biziduna.



Olentzerok adi-adi entzun zituen Mendaroko haurren eskaerak.



Haurtxo bat eta Olentzero elkarri keinuka.  
Hitzik ez dute behar elkar ulertzeko.



# Mintxeta atletismoaren katedrala



**Urtarrila iristearekin batera, atletismo kutsua hartu du Elgoibarrek. Domekan jokatu da Nazioarteko Juan Mugertza Krosa Mintxetan, eta urtero bezala punta-puntako korrikalariak ekarriko dituzte antolatzaileek. 10:00etan hasiko da atletismoaren jaia, eta Mintxeta atletismo taldekoek herritar guztiak gonbidatu dituzte festara.**

**Ainhoa Andonegi**

**D**ena prest dago domekarako. Iritsi da atletismoaren urteko zitarik garrantzitsuena Elgoibarrera, eta Mintxeta atletismo taldeko kideek gogotik egin dute lan, dena ondo irten dadin. 80.000 euroko aurrekontua izango du aurtengo krosak, eta urtero bezala, nazioarteko korrikalaririk onenak ekartzen saiatu dira. Bihar egingo diete korrikalari harrera udaletxean, 19:30ean, eta korrikalari gazteek “izarrekin” bat egingo dute pleno aretoan. Domekan, 10:00etatik aurrera, jokatu dute Mugertza krosa, Mintxetako berdegunean. Ikusmin handia espero dute antolatzaileek, eta dagoeneko Espainiatik zalez eta korrikalariz beteriko hamabost autobus etorriko direla aurreratu dute.

## **700 bat korrikalari**

Euskal Herriko eta atzerriko 700 bat korrikalari arituko dira saltaka domekan Mintxetan. Gaztetxoek egingo dute korrika lehengo, eta adinaren arabera jokatu dira ondorengo lasterketa guztiak. Senior mailan, 12:30ean hasiko da emakumezkoen las-

terketa, eta gizonezkoena, 13:00etan izango da. Faboritoen artean, Kipruto eta Bett iazko lehen bi sailkatuak etorriko dira gizonezkoetan. Emakumezkoetan Ayalew, Cheroto eta Masai izango dira faborito nagusiak. Afrikako korrikalariekin batera, Euskal Herriko eta Espainiako izen handiko korrikalariak izango ditugu, gizonezko zein emakumezkoetan: Javier Guerra, Ivan Fernandez, Diana Martin eta Iris Fuentes-Pila esaterako.

## **Antonio Serrano kartelean**

Antonio Serrano korrikalari madrildarrari eskaini diote aurten Mintxetako kideek Mugertza kroseko kartela. Antonio Serranok maiz hartu du parte Elgoibarko krosean, eta aurten, 25 urte bete dira Mugertza krosa irabazi zuenetik. Serranok 48 urte ditu, eta korrikalari ibilbidea utzita duen arren, atletismotik eta atletismorako bizi da. Gaur egun entrenatzaile lanetan dihardu Serranok, eta iaz distantzia luzeetako bigarren entrenatzaile onena izendatu zuten. Berarekin entrenatzen dira, besteak beste, Javier Guerra, Txema Martinez edota Diana Martin korrikalari ezagunak.



Antonio Serrano *Korrikalari ohia*

**“Elgoibarren irabaztea ez zen erraza,  
eta niretzako esperientzia izugarria izan zen”**

**25 urte pasatu dira Mugertza krosa irabazi zenuenetik eta antolatzaileek zuri eskaini dizute aurtengo krosaren kartela. Nola hartu duzu?**

Oso detaile polita izan da. Nik gogoan neukan urteurren hori, baina ez nuen espero kroseko kartela niri eskainiko zidatenik. Hori bizitza guztirako geratzen da, eta poz handia eman dit. Ohore bat izan da niretzat.

**Mugertza krosarekin lotura estua izan duzu betidanik, eta oraindik ere jarraitzen duzu. Zer dauka zuretzat Mugertza krosak?**

Zazpi bat aldiz hartu nuen parte Mugertza krosean, eta behin irabazi egin nuen, gainera. Orain entrenatzaile gisa etortzen naiz, eta oso gutxitan egin dut kale. Elgoibarko krosa izugarri gustatzen zait. Krisi garaian egon arren, Espainiako eta Nazioarteko krosen artean mailarik altuenetarikoa dauka, eta oso ondo antolatuta egoten da. Gustatzen zait Elgoibarrera joatea eta domeka honetan ere hantxe izango naiz. Gaur egungo antolatzaileekin adiskidetasun handia daukat, eta ahal dela behintzat, ez zait gustatzen zita horretan huts egitea. Domekan entrenatzaile moduan joango naiz, nire korrikalari babesa ematera. Diana Martín, Iris Fuentes Pila, Alessandra Aguilar, Javier Guerra, Antonio Nuñez onenen artean egotea espero dut.

**‘Tratu onaren krosa’ bezala izendatu zuten garai batean Mugertza Krosa. Nola gogoratzen duzu zuk korrika egitera etortzen ziren garaia?**

Oso ondo gogoratzen dut, eta egia esan, oso egun bereziak izaten ziren Elgoibar-koak. Irabazi nuen urtea ondo gogoan daukat. Lasarten egin nuen korrika lehe-

nengo, eta handik zuzenean joan ginen Elgoibarrera. Ez nintzen oso ezaguna garai hartan, baina oso ondo hartu ninduten antolatzaileek. Lasterketa bukatu zenean denok joan ginen bazkaltzera, eta irabazlearen liburua sinatu nuen ueña hunkigarria izan zen. Munduko Txapeldunen ondoan nire izena ikusteak emozionatu egin ninduen. Urte hartako kamiseta bera ere gordeta daukat! 14 zenbakia zeukan! Elgoibarren irabaztea ez zen erraza, eta niretzako esperientzia izugarria izan zen.

**Gaur egun entrenatzaile lanetan diharduzu. Atletismotik eta atletismorako bizi zara?**

Bai. Nire pasioa eta lanbidea atletismoa da. 99an laga nion goi mailan lehiatzeari, eta ordutik entrenatzaile lanetan dihardut. Hogeitabat korrikalari entrenatzen ditut, eta gustatzen zait lasterketetara joatea animoak ematera.

**Desberdin bizi duzu krosa korrikalari edo entrenatzaile ikuspegitik?**

Bai, oso desberdina da. Esango nuke entrenatzaile postutik gogorragoa dela krosa, nik behintzat gehiago sufritzen dut. Korrika egiten nuenean, niretzat lehiatzen nuen. Ondo edo gaizki egin, ondorioak niretzat ziren, onak zein txarrak. Baina orain beste batzuegatik sufritzen dut: egun txarra badute, lesioren bat... gogorra egiten zait. Haietzat onena nahi izaten dut beti, eta hori zaila da. Gogor egiten dugu lan jarritako helburuak lortzeko, eta gauzak ez badira guk nahi bezala irteten sufritu egiten dut.

**Gaur egun atleta izatea lehen baino zailagoa dela iruditzen zaizu?**

Ez dut uste garaiak konparatzea egokia denik. Garai desberdinak dira: gizarteak eboluzionatu egin du, teknologiak asko egin du

aurrera, eta denetik daukagu esku-eskura. Lehen telebistan futbola, saskibaloia, eskubaloia eta atletismoa ematen zituzten soilik. Gaur egun aukera askoz zabalagoa daukagu, eta badirudi atletismoak presentzia galdu duela, baina ni baikorra naiz zentzu horretan. Nire inguruan atletismoa oso presente dago, eta iruditzen zait beste kirol guztien oinarria dela atletismoa. Eskoletan ere asko ibiltzen naiz, eta eskola kirolaren barruan txiki-txikitik hasten dira korrika umeak. Atletismoa bizitzeko modu bat da jende askorentzat, eta garaipenak garrantzitsuak badira ere, hori ez da garrantzitsuena. Herri lasterketetan ere gero eta jende gehiagok parte hartzen du, eta, nire ustez, atletismoak indarrean jarraitzen du. Ez da sekula galduko.

*Antonio Serrano Lerunen, 1989an.*





Zigor Diez, Antonio Serranok Elgoibarren irabazi zuen kamisetarekin.

**Nola moldatu zarete aurtengo krosa antolatzeko?**

Guk antolatzen dugun hamairugarrena izango da aurtengo krosa, eta egia esateko, urtetik urtera gehiago kostatzen zaigu krosa antolatzea. Aurten 80.000 bat euroko aurrekontua daukagu. Azken urteetan asko jaitsi da aurrekontua, baina behar bada ekonomia ez da arazo larriena. Eragiten du, jakina, baina ekonomiaz aparte, baditugu bestelako zailtasunak ere. Jende asko behar da Mugertza krosa antolatzeko, eta Mintxeta taldean zortzi bat lagun baino ez gaude kros batzordean. Egia da egunean bertan boluntario pila batek laguntzen digutela, eta eskerrak eman nahi dizkiet, haiek gabe ezinezkoa izango litzatekeelako krosa aurrera atera-

Zigor Diez *Mintxeta taldeko kidea*

**“Atletismo hutsa baino gehiago da guretzat Mugertza krosa”**

tzea. Dena dela, gustatuko litzazuke lekukoa hartuko lukeen jendea sartzea klubean. Guk laguntzen jarraituko dugu, baina antolakuntzan jarduteko jende berria behar dugu atletismo taldean.

**Aurrekontu txikiagoa izan arren, Espainiako krosen artean maila handienetarikoa du Mugertza krosak. Zein da arrakasta horren gakoa?**

Lana, dudarik gabe. Arrakastaren atzean beti dago lana. Aurrekontua azken urteetan jaitsi egin den arren, punta-puntako korrikalariak ekartzen ahalegintzen gara beti, eta horrek eman digu izena. Espainiako krosen artean, bigarren lekuan dago Elgoibarkoa, Atapuercakoaren atzetik. Sevillakoak izen handia zeukan lehen, baina azken urteetan asko jaitsi da.

**Korrikalariei ematen zitzaizen tratuagatik zen ezaguna garai batean Mugertza krosa. Gaur egun, nolako harremana duzue korrikalariekin?**

Lehen bezala hartzen ditugu. Boluntarioak joaten dira aireportura korrikalarien bila, eta eurekin egiten dugu Elgoibarrera arteko bidea. Liburuxka bat ematen zaie, krosari eta herriari buruzko informazioa ematen zaie, hotelean ere harrera egiten diegu... Herria erakusten diegu, neskekin erropak erostera ere joan izan gara, eta noizbait Realaren partidaren bat ikustera ere eraman izan ditugu. Atletak gustura egotea nahi izaten dugu, eta korrikalariak eurek ere eskertzen dute hemen ematen diegun tratua. Sevillan, esaterako, sekulako hotelera eramaten dituzte, bost izarreko hotel izugarri, baina han pasatzen dituzte egunak, eurak bakarrik ia inora irten gabe. Hotel inguruan korrika apur bat egiten dute, baina ez daukate inorekin harremanik. Ez dauka Elgoibarkoarekin zerikusirik. Korrikalariei tratu berezia ematen diegu Elgoibarren.

**Eta herritarrek nola erantzuten dute Mugertza krosarean?**

Ondo erantzuten dute. Jende pila bat joaten da Mintxetara egun horretan, baina gustatuko litzaidake gehiago joatea, gazteak bereziki. Badakit telebistan ematen dutela eta Mintxetan hotz egiten duela, baina guretzako garrantzitsua da jendea joatea. Nazioarteko ekitaldia da, egun garrantzitsua, eta guk egun horretan dena ondo irten dadin egiten dugu lan urte osoan. Atletismo hutsa baino gehiago da guretzat Mugertza krosa, jai bat da, eta herritarrek egun hori modu berezian gozatzeari nahi dugu. Txaranga ere eramaten dugu Mintxetara giroa berotzeko eta jendeak ondo pasatzeko. Etorkizunerako gustatuko litzazuke Elgoibar atletismoaren hiria izatea edo Mintxeta atletismoaren katedral izendatzea. Saiatuko gara txapelketaren bat edo antolatzen Mintxetan. Markak egiteko pista ona da, eta polita izan daiteke.

**Gau Krosa eta San Silvestre lasterketa gero eta indar handiagoa hartzen ari dira Elgoibarren.**

Bai, harrituta geratu gara aurtengo San Silvestre lasterketarekin. Jende asko ari da korrika azken urteetan, baina ez genuen horrelakorik espero. Aurrez izena emanda 56 bat lagun zeuden, baina egunean bertan jende pila batek eman zuen izena. 160 lagun! Sekulakoa izan zen. Jende asko mozorrotuta agertu zen, eta oso giro onean joan zen lasterketa. Txokolatea eta ura gastatu egin zitzaizkigun, baina moldatu ginen. Eskerrak eman nahi dizkiet parte hartu zutenei, eta ordu horretan animoak ematera irten ziren guztiei. Horrelako gauzek lanean jarraitzeko ilusioa ematen dute. Krosa herrira jaisten dugunean, oso ondo erantzuten dute herritarrek.





# MUGERTZA KROSAREN NONDIK NORAKOAK

1943an sortu zuten Muger-tza krosa. Garai hartan CD Elgoibarrek antolatzen zuen lasterketa, eta San Bartolome jaietan egiten zen. 1949an atletismoko federazioko lasterketen egutegi ofizialean sartu zuten, eta urtarrean egiten hasi ziren. 1960an Ego Toki elkarteak hartu zuen Mugertza krosa antolatzeko ardura, eta handik hiru urtera etorri zen krosaren aldaketarik garrantzitsuena: 1963an, hain zuzen ere. Or-dura arte Espainiako lasterketa zen Mugertza Krosa, baina 63an korrikalari atzerritarrak etorri ziren estreinakoz Elgoibarrera. Mamo Wolde eta Tsegale Marian etiopiarrek eta Osvaldo Suarez argenti-narra izan ziren Mugertza krosean parte hartu zuten lehenengo

atzerritarrak. 2002an Mintxeta atletismo taldeak hartu zion lekukoa Ego Tokiri, eta ordutik beraiek dihardute Mugertza Krosa antola-tzen.

Krisia krisi eta zailtasunak zailtasun, ilusioz dihardute lanean, eta aur-ten ere izen handiko korrikalariak ikusteko aukera izango dute dome-kan Mintxetara gerturatzen direnek. Korrikalari afrikarrak dira lasterketa irabazteko faborito nagusiak, baina europarrek nagusitasun hori ozto-patzeko ahaleginak egingo dituzte.

Erreminta makinaren museoa egin zuten krosaren aurkezpena eguaztenean, eta bertan izan ziren korrikalarietako batzuk. Jarraian di-tuzue domekan adi-adi jarraitu beharreko korrikalarien izenak.

## Senior gizonezkoak

**CONSESLUS KIPRUTO**  
(Kenya, 1994)

- 2013ko Mugertza kroseko irabazlea.
- Mosku 2013, 3000 metroko traba proban txapel-dunordea.
- Munduko hirugarren sailkatua 3000 metro oztopoetan 2013an.

**EMMANUEL BETT**  
(Kenya, 1985)

- 2013ko Mugertza kroseko txapel-dunordea.
- Munduko sailkapen nagusian lehenengoa 2012an.
- Munduko sailkapen nagusiko 17.a 2013an.
- Atapuercan bigarren eta Alcobendasen lehe-nengo postuak lortu ditu aurten.

**TIMOTHY TOROITICH**  
(Uganda, 1991)

- 2013ko Poloniako Krosean bosgarren egin zuen
- Moskuko munduko txapelketako finalista 10.000 metroan
- Munduko sailkapen nagusiko 20.a 2013an.
- Atapuercan laugarren eta Alcobendasen hiruga-rren egin du aurten.

**JAVIER GUERRA**  
(Espainia, 1983)

- Espainiako txapeldu-na maratoian
- Moskuko maratoian 15. Egin zuen 2013an
- Espainiako kros txapelketako txapel-dunordea 2013an.

**IVAN FERNANDEZ**  
(Euskal Herria, 1988)

- 2013ko Mugertza krosean zortzigarren egin zuen.
- Espainiako kros txapelketan zortzigarren, 2013an.
- Europako txapelketan 11. Egin zuen 2013an, Belgradon.

## Senior emakumezkoak

**HIWOT AYALEW**  
(Etiopia, 1990)

- Munduko kros txapelketako txapel-dunordea 2013an, Polonian.
- 2012ko Londreseko Olinpiar Jokoetan bosga-rena, 3.000 metroko oztopoetan.
- Munduko txapelketa-ko 3.000 metroko ozto-poetan laugarrena 2013an, Moskun.
- Aurten Atapuercan, Cross L'Alcier eta Camaccio krosak irabazi ditu.

**MERCY CHERONO**  
(Kenya, 1991)

- 2013ko Mugertza Krosean bigarrena.
- Munduko txapel-dunordea 2013an, Moskun.
- 2010ean munduko txapelduna juniorretan.
- 5.000 metroko munduko sailkapen nagusian seigarrena, 2103an.
- Venta de Baños krosa irabazi du aurten.

**LINET MASAI**  
(Kenya, 1989)

- Munduko kros txapelketako txapel-dunordea hirutan.
- 2009an munduko txapelduna 10.000 metroan, Berlinen.
- Munduko sailkapen nagusiko bederatzigarrrena 10.000 metroan.
- Atapuercan eta Cross L'Alcier probetan bigarren egin du aurten.
- 2008ko Olinpiar Jokoetan zortzigarren, Pekinen.

**DIANA MARTIN**  
(Espainia, 1981)

- 2013ko Mugertza Krosean bosgarren egin zuen.
- Espainiako kros txapelketan txapel-dunorde, 2013an
- Espainiako kros txapelketako irabazlea 2012an
- Europako txapelke-tan 14. egin zuen Belgradon, 2103an

**IRIS FUENTES-PILA**  
(Espainia, 1980)

- Europako txapelke-tan 10. egin zuen 2103an, Belgradon.
- Espainiako kros txapelketan zazpigarrena izan zen, 2013an.
- Atapuercan seigarren egin du aurten.

## Erreminta makinaren mendeurrenari eskaini diote aurten zigilu erakusketa

Bihartik hasita, hilaren 20ra arte egongo da ikusgai

**S**an Anton jaien barruan, bihar inauguratuko dute Altzolatarren Dorretxea taldeko kideek zigilu erakusketa. Elgoibarko erreminta makinak ehun urte beteko ditu aurten, eta horri eskainiko diote erakusketa. Urtero bezala, aukeratutako gaiari buruzko hainbat bilduma jarriko dituzte ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Euskal Herriko eta Espainiako hamalau bilduma izango dira aurten, tartean Fermin Zurriaran elgoibartarrarena. Bihar eguerdian egingo dute inaugurazioa, 12:00etan, eta hilaren 20ra arte egongo da erakusketa ikusteko aukera. Asteazkenetik 18:30etik 20:30era egongo da zabalik, eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.




## Zuhaitz Gurrutxaga Herriko Antzokira itzuliko da hilaren 17an, 'Hiru' antzezlanean



Zuhaitz Gurrutxaga berriro igoko da Herriko Antzokiko oholtzara. Iaz *Confidencias de un futbolista* bakarriketa aurkeztu zuen aiastiarrek, eta oraingoan, *Hiru* antzezlanaren barruan egingo du agerraldia, Loli Astoreka, Miren Gojenola eta Ana Elordi aktoreekin batera. Txaro, Mertxe eta Angela oso lagun onak ziren ikasketa garaian, baina ikasteari utzi ziotenetik ez dute elkar ikusi. Bakoitzak bere bideari jarraitu dio, baina orain, 50 urte betetzear dauden honetan, bat egingo dute berriro. Eta konturatuko dira hiruretako batek ere ez duela ama izatearen ametsa bete. Beranduegi izango da beharbada... edo ez? Gizon bat aurkitu eta espermatozoideak eskatuko dizkiote. San Anton egunean izango da antzerkia, 20:30etik aurrera, Herriko Antzokian. Sarrerak [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean erosi daitezke aurrez, eta soberan geratzen badira, egunean bertan jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko lehiatilan.

## Jaiotza mekanikoa ikusteko aukera badago oraindik

Eguberriak joan dira dagoeneko, baina oraindik badago aukera parrokiako jaiotza mekanikoa ikusteko. Urtarrilaren 17ra arte egongo da zabalik Elgojajotza taldeko kideen lokala. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era bisitatu daiteke, eta zapatu eta jaiegunetan 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era.



## 'Alabatxo' antzerkia, urtarrilaren 19an

Tartean antzerki taldeak *Alabatxo* antzezlanaren taularatuko du Herriko Antzokian, urtarrilaren 19an. Laida haurdun dago. Martin senarra eta biak pozez zoratu beharrean daude, umea noiz jaioko zain. Dagoeneko hasi dira imaginatzen nolakoa izango den euren aita-amatasuna. Halako batean, baina, gauzak erabat aldatuko dira: Laidak haurra galduko du. Ondorioz, bai Laida eta baita Martin ere lur jota geratuko dira. Laidak ezin izango dio buelta eman nahigabeari eta errealitateari aurre egiteko indarrik gabe geldituko da. Orduan, bere aita Tomasek, bere alabatxo maitea sufritzen ikustean, hari laguntzeko erabaki sendoa hartuko du. 16:30ean izango da ikuskizuna, eta sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira, Herriko Antzokiko lehiatilan.

## San Anton pilota txapelketa egun bakarrean jokatu da aurten, arazo ekonomikoak tarteko

Hilaren 17an jokatu da jaialdia, eta bi partida izango dira guztira

**P**ilotan ere igarri dute krisia. Hala jakinarazi dute Lagunak pilota eskolakoek. Aurten, jaialdi bakarrean jokatu da San Anton pilota txapelketa. Iaz arte, hiru jaialdi izaten ziren, eta guztira, zortzi bikotek parte hartzen zuten txapelketan. Bi maila izaten ziren: promesak eta nagusiak, eta kategoria bakoitzean bina finalaurreko jokatu ziren, eta bi bikote irabazleak sailkatzen ziren gero San Anton egunez jokatu ohi zen finalerako. Aurten ez da halakorik izango, baina.

Jaialdi bakarra izango da, bi partida guztira. Ohi legez, ikastolako frontoian jokatu dira partidak, 22:15etatik aurrera. Lehenengo partidaren herriko pilotariak lehiatuko dira: Kepa eta Lizarralde, Agirrebeña eta Txurrukaren kontra. Bigarren partidaren, berriz, Urbieta II.a eta Murgiondo, Atxotegi eta Urruzolaren kontra ariko dira, azken orduko aldaketarik ezean. Izan ere, antolatzaileek jakinarazi dute guztiz lotu gabe dutela jaialdiko bigarren partida hori.



Arg.: elgoibar.org

### Daniel Alsina kataluniarrak irabazi zuen Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa

Daniel Alsina nagusitu da aurten Eguberrietan jokatu den Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketan. Iaz moduan Cristhian Cruz perutarra sailkatu zen bigarren postuan eta Tanguy Ringoir belgikarra hirugarrenean. Txapelketa honetan lehen aldiz aritu da aurten Gustavo Barrenetxea elgoibartarra, baina ez du nahi beste zorte izan, eta azken amaitu du. Honela gelditu da sailkapen nagusia: Daniel Alsina (6,5 puntu), Christian Cruz (6), Tanguy Ringoir (5,5), Dragan Paunovic (5,5), Aleksa Strikovic (5), David Astasio (4,5), Alejandro Franco (4), Oleg Romanishin (3,5), Angel Arribas (3) eta Gustavo Barrenetxea (1,5).

### Ehun ume inguruk parte hartu zuten Mendaroko haur krosetan

Haurrak Eguberrietako oporraldian zirela baliatuta, haur krosa antolatu zuen Mendaroko Txirrindulari Elkarteak San Tomas egunez. Iaz antolatu zuten estreinakoz, eta ordukoan bezala, aurten ere erantzun ona eman zioten herriko gaztetxoek. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ehundik gora umek parte hartu zuten. Antolatzaileek argi laga zuten ez zela lehiaketa. Hau da, parte hartzea zela garrantzitsua eta kontua ez zela nor azkarrago iritsi, baina umek zuten guztia eman zuten, argazkian ikus daitekeen bezala. Bukeranean, domina eta goxoki-poltsa bana jaso zituzten guztiek. Herriar ugari batu ziren San Jose plazara, umeen korrika saioak ikustera. Argazki gehiago: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net).



**LANA**

**ESKAERA**

- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. ☎ **654 304 337**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **631 053 696**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. Asteburuetan lan egiteko prest. ☎ **666 008 974**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. Esperientzia daukat. Paperak legez ditut. ☎ **638 863 019**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **626 052 165**

- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **632 126 668**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo interna. ☎ **642 609 678**
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Asteburuetan ere bai. ☎ **943 740 365**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko. ☎ **602 865 726**
- Emakumea lanerako gogoz. Adinekoak nahiz umeak zaintzen, sukaldian laguntzen edo etxeak garbitzen egingo nuke lan. ☎ **606 354 982**
- Neska eskaintzen da, edozein lanerako. ☎ **654 938 957**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ **632 437 067**
- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **617 280 304**

- Emakumea eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **943 254 087 / 672 966 528**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Fisioterapia ikasketak ditut. ☎ **610 949 526**
- Gizonezkoa lanerako prest: pertsona nagusiak zainduz, garbiketa lanak eginez... Edozein motatako lanak egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Emakumezkoa adinekoak zaintzeko prest, asteburuetan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, orduka. ☎ **646 821 678**

**BESTELAKOAK**

- Samsun Galaxy markako sakelako telefonoa aurkitu dut Maala inguruan. ☎ **662 675 714**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Gure komunitatean birgaitze lan batzuk egin behar dira, eta etxe-jabeen azkeneko batzarrean erabaki zen obra hori denon artean ordaindu behar genuela, zati berdinetan. Gaur arte, dagokigun parte-hartzearen arabera egin ditugu ordainketa guztiak, tamaina ezberdinetako etxebizitzak eta lokalak daudelako. Bizilagun batzuk ez gaude konforme erabaki honekin, eta jakin nahiko genuke zer egin dezakegun.**

Etxe-jabeen batzarra da ahobatez parte-hartze kuotetan eta gastu orokorren atalari dagokion parte-hartze sisteman aldaketak egitea erabaki behar duena, izan ohiko kuotak edota ez ohikoak aldatu nahi direnak. Batzar horretan egon eta hartutako erabakiarekin gustura ez dauden horiek konforme ez daudela adierazi behar dute, eta aktan jaso beharko da hori. Batzarrean egon ziren etxe-jabeak zerrendatu beharko dira aktan, eta zehaztu horietatik zeintzuk dauden ados eta zeintzuk kontra, kontra daudenek inpugnatu ahal izateko. Batzarrean izan ez zirenak han hartu zen erabakira lotuta egongo dira, beti ere akta jasotzen dutenetik 30 eguneko epean idazkari-administratzaileari edo eta presidenteari euren desadostasuna era frogagarrian agertzen ez badiote.

**Gomendioa: Etxe-jabeen batzarrean legeak zehaztutako gehiengorik gabe hartzen baldin bada erabaki bat beti izango da inpugnatzeko aukera.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Eneko**, urtarilaren 5ean 5 urte egin zenituelako. Zorionak, eta muxu bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Victoria**, abenduaren 16an 3 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak **etxeko sorgintxoari**, familiakoen eta bereziki, ahizpa Sararen partez.



• Elgoibarko sorginak zutaz ere gogoratu dira! Zorionak, **lhintza!** Ondo joan zen atzoko eguna? Gu txokolatea txurroekin jateko zain gaude. Bi muxu handi handi.



• Zorionak, **Irune Arriolari** bere urtebetetze ondorenean. Etxeko en, eta bereziki ahizpa Garazi eta lehengusu Julenen partez.



• Zorionak, **Ekain**, zure bosgarren urtebetetzean. Aitaren eta aitona-amonen partez.



• Zorionak, **June**, 9 urte egin dituzulako. Etxeko en partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Ainhoa**, Errege egunean 8 urte bete zenituelako. Patxo handi bat, familiako en eta bereziki, Ne-rearen partez.



• Zorionak, **Elur**, hilaren 7an 5 urte egin zenituelako. Muxuak, txapeldun.



• Zorionak, **Jon**, aste-artearen 8 urte bete zenituen-eta! Segi beti bezain irrifartsu. Muxu potolo bat, etxeko en partez.



• Zorionak, **Felisa eta Flora**, urtarilaren 6an 96 urte egin zenituztelako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Nakor eta Nahia**, abenduaren 25ean eta 31n 2 urte egin zenituztelako. Familiako guztien partez.

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4'50€** - Argazki bikoitza **7€** - Hirukoitza **9€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **3'50€** - Argazki bikoitza **6€** - Hirukoitza **8€** - Hiru lagunetik gorako taldeak **12€**

Argazkiak **eguztzen eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, **12:00ak** baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**Konfiantzan IKASTOLA**  
 HH 0 (2013an eta 2014an jaiotakoak)  
 otsailetik ekainera hasteko  
 matrikula zabalik  
 urtarilaren 13tik 24ra

Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera  
 urtarilaren 13an, 18:00etan

elgoibar ikastola

## 11 zapatua

### Mugertza krosa

19:30 Korrikalariei harrera

Udaletxeko pleno aretoan.

### Erakusketa

12:00 Zigilu erakusketaren inaugurazioa

Erreminta Makinaren mendeurrenari eskainiko diote erakusketa aurten. Hilaren 19ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxean.

## 12 domeka

### Kirola

10:00 Mugertza krosa

Nazioarteko Mugertza Krosa, Mintxetan.

## 15 eguztena

### Hitzaldia

19:00 Patxi Baztarrika

Kalamua guraso elkarteak antolatuta, Patxi Baztarrika Hizkuntz Politikarako sailburu ordeak eskainiko du hitzaldia. Musika Eskolan.

## ZINEA

### «El Hobbit: La desolación de Smaug»

10, barixakua: 22:15  
11, zapatua: 19:00/22:15  
12, domeka: 19:00  
13, astelehena: 21:30



### «Frozen: El reino del hielo»

12, domeka: 16:30

### «La vida de Adele» (Ongarri)

21, eguzena: 21:30



## OHARRA

Urtarrilaren 17a, San Anton Eguna, **BARREN itxita** egongo da. Hori dela-eta, hilaren 16an kaleratuko dugu datorren asteko aldizkaria. Ale horretan informazioen bat sartu nahi izanez gero, astearte eguerdirako helarazi beharko diguzue. Eskerrik asko.

### BOTIKA ORDUTEGIAK: 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK


09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
10 Zabaleta 11 Garitaonandia 12 Garitaonandia 13 Yudego 14 Garitaonandia 15 Etxeberria 16 Fernandez	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142


**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384



Bazkide izateko 2. epea zabalik. Urtarriletik uztailetera 30€.  
Deskontuak familia ugarientzat zein ongizateko erabiltzaileentzat

Urtarrilean ping-pong txapelketa gaztelekuan.  
Izena emateko epea urtarrilaren 19ra arte



# ARAMBURU



BITXIDENDA

## ARANBURU BITXIDENAKO GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA

250 €-ko

balea bitxi dendan  
gastatzeko

Zbkia.: 138

Ordezko zbkia.: 1.736



2. SARIA

250 €-ko

balea bitxi dendan  
gastatzeko

Zbkia.: 12

Ordezko zbkia.: 1.083

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

# MGS

## Aseguruak

Kalikatatea eta Zerbitzuan Finkatua  
ZU ETA ZURE FAMILIAREN LASAITASUNERAKO ASEGURUAK

**MARIA LUISA URAIN ARAKISTAIN**

Jausoro plaza 1 · 20870 Elgoibar

T/ 943 742 699 · F/ 943 741 235

murain@mgs.es

Aseguru Agente eskusiboak C079415339944W

**ALEJANDRA GAUNA GARCIA** izan da urtero bezeroen artean  
zozketatzen den telebistaren aurtengo irabazlea

### ASEGURU MOTA GUZTIAK

- Istripu aseguruak
- Istripuak errentarekin
- Gaixotasun aseguruak
- Auto eta etxe aseguruak
- Aurretze eta jubilazio planak
- Bizitza aseguruak
- Diru inbertsioak
- \* "Vida fondo" (unit link)
- \* Burtsa
- \* Inverseguro (kapital ziurtatuarekin)
- \* PPA desgrabatze eta kapital ziurtatua



www.mgs.es

# VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit  
inoiz ez dela berandu  
irribarre polit bat  
edukitzeko

Ortodontzian  
espezialistak

RPS 49/12



**EIBAR**  
San Juan kalea, 7  
**943 82 18 85**